



# Zurriolako Ataria

57. alea 2019-04-05

## Zurriolak 2.066 kilometroan hartuko du lekukoa

**Korrika badator** eta ikastolak urtero moduan kilometro bat hartuko du Donostian. Aurten, gainera, 50. urteurrena dela eta, ikasle, ikasle ohi eta guraso guztiak deitu egiten ditugu bertan parte hartzera. Soroa eta Ategorrietatik 17:05ean abiatuko den kalejirak familiekin batera ikasleak hartuko ditu eta Hurratik pasa eta gero Nafarroako etorbidera joango gara, 2.066. kilometrora. [Zirkularra](#).



## Batzar informatiboa 2019-21 antolaketari buruz

Datorren asteazkenean, apirilak 10, arratsaldeko 5:30ean Hurrako areto nagusian datorren ikasturteko aurrera LHrako aurreikusten ditugun antolakuntzaren zertzelada nagusiak azalduko ditugu.



## Larrialdi-simulakroa

Arriskuen Prebentzio eta Autobabes plangintzaren barruan, aste honetan buru dira larrialdietarako hustutzeak ikastolan. Honenbestez, Hurrant, Ategorrietan eta Soroan arrakastaz egin dira segurtasun simulakroak.



## Batxiko ate irekiak

Atzo egin zen arrakasta osoz datorren ikasturterako Batxilergo etapako *ate irekien* saioa. Ehundik gora lagunek jaso zuten ikastolako Batxilergo eskaintzari buruzko informazio zehatza.



## Teknologia berrien arriskuen prebentzioaz arrakasta handiz

Azken bi asteotan *Teknologia berriak eta menpekotasunaren prebentzioaren* inguruan HH, LH eta DBHko ikasleen gurasoei zuzendutako saioek interes eta partaidetza oso handia sortu dute. Aste Santuaren ondotik **Zurriolako Udaberriak** bestelako gaien inguruan hausnartzeko aukera eskainiko du.



## DBH4ko ikasleen testigantza Hitza-n

Gaur bertan argitaratu da Hiruxuloko Hitza DBH4ko ikasleek egindako [kolaborazioa](#). Oier Larrazabalek eta Lore Lasak osatutako elkarlanean atzerrian Intza Artetxek eta Nora Dazak izandako bizipenak agertzen dira.



### 2. HIRUHILEKO EMANALDIAK

Apirilak 5. ostirala	Esku-soinuko eta biolineko ikasleen emanaldia	Ategorrietako musika gelan	17:15ean
Apirilak 11. osteguna	Pianoko ikasleen emanaldia	Hurrako musika gelan	17:30etan

Zurriola Musika eta Dantza Eskola. 2. hiruhilekoari amaiera emateko, bigarren emanaldia apirilaren 11an izango da.

## ZURRIOLA IKASTOLA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

**ATE IREKIAK** Apirilak 11-17:30ean  
Indianoene, 1 - Donostia

GIZARTE ETA KIROL ANIMAZIOA ETA IRAKASKUNTZA  
"Hartu kirolaren olafua, izan nahi duzuna"

[www.zurriolaikastola.eus](http://www.zurriolaikastola.eus)  
✉: zurriola@ikastola.eus ☎: 943 272 587

## OHARRAK / AGENDA:

- **HH:** 21. Korrika giroten! [Zirkularra](#).
- **LH1:** OIASSOra irteera. Egun pasa. Apirilak 9 (ogitartekoa ekarri).
- **LH3-4:** Igeriketa ikastaroa. Goizez. Apirilak 8-11 (Adi! Data aldaketa). [Zirkularra \(berria\)](#).
- **LH5:** Errebisio medikua. Goizez. Apirilak 9.
- **LH5:** Giza Eskubideen Zinema. Goizez. Apirilak 10.
- **LH5:** Txuri-Urdinera irteera. Goizez. Apirilak 11.
- **LH6:** Txuri-Urdinera irteera. Goizez. Apirilak 10.
- **LH6:** Giza Eskubideen Zinema. Goizez. Apirilak 11.
- **DBH4:** Bela ikastaroa. DBH2C apirilak 8, 2A apirilak 9 eta 2B apirilak 11. 15:00etan eskolak portuan amaituko dira.
- **DBH4:** Gerra zibila Donostian. 4C eta 4A apirilak 11. 4B apirilak 12. Oharra: 4A, bazkenaria etxetik erriera.
- **BATX1:** Bolumenari irteera. Donostiako eskulturak bisitatzera. Apirilak 8.
- **Ikastolaren Festa:** Egitarauan eta zereginetan laguntzeko [informazioa](#).
- **Artezkaritza Kontseilua:** Bilera. Apirilak 8. 18:00.
- **50. urteurrena - Ikasle ohien bazkaria:** Bilera. Maiatzak 2. 19:30. Hurra.
- **Eskola Kirola:** 19. jardunaldia. A eta B.
- **Aisialdiko jarduerak haurrentzat:** [Apirilak 5-7](#).
- **Groseko Hautxokoa & Gazteleku:** Apirileko [programazioa](#).

